



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilak 19k

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2016

Lehendakaritza

EUSKO JAURLAITZAK 260.000 EURO BIDERATUKO DITU TERRORISMOAREN BIKTIMEN ELKARTEEI LAGUNTZEKO

- **Aurtengo diru-laguntzak emateko prozesua errazten duen eta urtarrilean onartu den araudi berriaren menpe izango dira.**

Eusko Jaurlaritzak aurten guztira 260.000 euro bideratuko ditu terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzetara. Jaurlaritzaren Kontseiluak laguntza horien deialdia onartu du gaurko bileran. Laguntzak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez izapidetuko dira. Diru laguntzen kopurua beste urteetan ere berdina izan da.

Terrorismoaren biktimen edo giza-eskubideen arloan jardun ohi duten erakunde eta elkarteek jasoko dituzte laguntzok, Euskal Autonomia Erkidegoan badute egoitza. Laguntzen onuradun izan daitezke, halaber, honako erakunde hauek: EAetik kanpo egoitza duten terrorismoaren biktimen elkarteak, EAEn gertatutako ekintza terroristen biktimak izanez gero beraien kideen artean; eta irabazi asmorik gabeko beste pertsona juridiko pribatu batzuk, EAEn gertatutako ekintza terroristen biktimei laguntzeko berezko helburua badute.

Elkarteek sustatutako programa eta jarduerak honako helburuak izango dituzte, besteak beste: terrorismoaren biktimei arreta, orientazioa eta giza babesa ematea; biktimak edo bere senitartekoak laguntzea biktimak izatera eraman dituzten delituekin lotutako epaiketetara; terrorismoaren biktimei eta zaintzailearen lana betetzen duten familiako pertsonen laguntza psikosoziala eskaintzea; eta, oro har, terrorismoaren biktimei buruzko eztabaida-guneak, ikastaroak edo mintegiak antolatzea.

Laguntza horietara biltzeko eskabideak hilabeteko epean aurkeztuko dira, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Aurtengo diru-laguntzak Eusko Jaurlaritzak urtarrilean onartu zuen araudi berriaren oinarrituko dira. Araudi berri horrek teknika hobekuntzak jasoko ditu eta diru-laguntza hauek emateko prozedura erraztuko du.

Horrela ezabatu dira diru-laguntzen gehienezko mugak (lehen 48.000€koak edo 60.000€koak izan ahal ziren, aurkeztutakoaren arabera); hala ere, mugak jarri dira pertsonaleko gastuetarako eta emandako diru-laguntzen pentzutan egingo diren gastu arruntetarako, diru-laguntza hauen helburu nagusia terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza emateko programak baitira.

Lehendakaritza

EUSKAL GIZARTEAREN EGOERA SARIAREN DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio *Euskal Gizartearen Egoera Sariaren* deialdiari; Lehendakaritzak bultzatzen du sari hori.

Sariak balio izango du Euskadiko egoera soziopolitiko hobeto ezagutzen lagunduko duen edozein azterlan edo ikerketa edo egoera horren ikerketaren garapen teorikoa edo metodologikoa saritzeko. Horrekin lortu nahi dena da: kalitatean eta zorrotasun zientifiko-teknikoan maila hoberena erakusten duten ikerketak, egindako planteamenduaren originaltasunagatik azpimarragarrienak direnak edo erabilitako metodologiagatik produktu berriena dena eta bere alorreko ikerketa eremuan berritasuna dakarrenak sustatzea.

Lanak (euskaraz zein erdaraz) aurkeztu ahal izango dituzte 35 urtetik beherako goi mailako tituludunek, bakarka zein taldean. Aurkeztuko diren lanak argitaratu gabeak izan beharko dira eta azken bi urtetan egindakoak. Lanak aurkezteko epea irailaren 13an bukatuko da.

Saria 7.300 eurokoa izango da eta 1700 euroko accesit bat ere emango da. Saritutako lanak Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzak argitaratuko ditu.

MONTPELLIERREKO EUSKAL ETXEA ONARTU DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio “*Association des basques de Montpellier et sa region-euskaldunak*” euskal etxea onartzeari.

Gaur onartu da Frantziako lurraldean ezarritako bostgarren euskal etxea, Parisekoarekin, Pauekoarekin, Bordelekoarekin, Marsellarekin batera, eta munduan zehar sakabanatuta daudenen arteko 190. euskal etxea da.

Zentro berria Euskal Etxeen Erregistroan sartuko dute eta zentro horren helburuak honako hauek izango dira, besteak beste: euskal hizkuntza eta horren erabilera sustatzea, Euskadiren ohiturak eta usadioak mantentzea eta euskal etxeen nazioarteko sare ofizialean modu aktiboak parte hartzea.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

TURISMO-LEKU BERRIEN ERAKARGARRITASUNA HOBETZERA 1.280.000 EURO BIDERATU DIRA LURRALDEKO TURISMO-PROIEKTUAK BABESTEKO DIRU-LAGUNTZEN BIDEZ

Eusko Jaurlaritzak 1.280.000 euro bideratuko ditu, Euskadiko helmugen erakarmena eta kalitatea hobetzeko turismo-proiektuak babesteko, eta, hartara, fluxu turistiko berriak sortzeko eta dinamizatzeko.

Honelako proiektu motak lagunduko dira:

a) helmugen erakarmena hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoak.

b) berrikuntzaren bitartez helmugen kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko eta turismo jasangarri eta arduratsua garatuko duten proiektuak. Atal horretan, hauek hartuko dira aintzat:

- Basquetour - Turismoaren Euskal Agentziak sustatutako eta kudeatutako helmugen lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.
- Kalitatearen eta ingurumenaren kudeaketarako erreferenteak ezartzeko proiektuak.
- Jasangarritasun-erreferenteak ezartzeko proiektuak.

Laguntzen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko pribatuak, baldin eta turismo-jarduera garatzeko eta sustatzeko eskumena edo helburua badute.

- Tokiko alorrean jarduten duten erakunde publikoak (udaletxeak, tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresa-erakunde publikoak eta titulartasun publikoko merkataritza-sozietateak).
- Eskualde-mailan nahiz eskualdez gaindikoan jarduten duten erakundeak: koadrila eta mankomunitateak, garapen-agentziak, landa-garapenerako elkarteak, turismoko partzuergoak, fundazioak eta beste erakunde eta elkarteak, hurrengo artikuluan bildutakoak izan ezik.

Eskaera lortzeko eta betetzeko eta hurrengo izapide guztiak egiteko, egoitza elektronikoa honetara jo beharko da:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.net/r44-teletram/es/> (gaztelaniaz)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.net/r44-teletram/eu/> (euskaraz)

Hasiera-data: 2016ko maiatzaren 3ko 00:00ak.

Amaiera-data: 2016ko ekainaren 2ko 12:00ak.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

MERKATARITZA- BANAKETAREN DINAMIZATZAILEAK PRESTATZEKO 34 BEKATARAKO DEIALDIA

Merkataritza- Banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko programaren diru-laguntzak arauetarako deialdia egingo da. Eusko Jaurlaritzak 525.000 euro bideratuko ditu merkataritza-dinamizatzaileentzako beketara, merkataritza-banaketaren sektorearen profesionalizazioa hobetzeko helburuz. Behar bezala kualifikatutako profesionalak trebatzea da helburua enpresako kudeaketa-esparru guztietan, merkataritza-sektorearen egiturari eta eta eboluzioari dagozkion ezagutzekin. Goi-mailako unibertsitate-tituludunek eska ditzakete, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan urtebetez baino gehiagoz bizi badira eta 32 urte baino gehiago ez badituzte.

Gehienez ere, 2016ko ekitaldian hogeita hamar (34) laguntza emango dira, eta hamabi hilabeteko iraupena izango dute.

Betekizunak, eta eskaerak egiteko tokia eta epea.

1.– Merkataritza-Banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko programa arautzen duen Aginduko diru-laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileek agindu horren 3. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

2.– Eskabidea egiteko eredia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun lurralde-ordezkaritzetan jaso daiteke, eta interneteko helbide honetan ere bai: www.euskadi.eus/comercio.

3.– Eskabide-orria eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Merkataritza Zuzendaritzari zuzenduta bidali beharko dituzte eskatzaileek, eta Sailaren lurralde ordezkaritzetan aurkeztu, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

4.– Deialdi honen bidez deitzen beketarako eskaerak egiteko epea 2016ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra artekoa izango da.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

2016KO EUSKAL MERKATARITZA SARIETARA HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzak 2016 ekitaldiko Merkataritza Sariak deitu ditu, sektore horretako hurrengo kategoria hauetan errekonozimenduak egiteko:

- Enpresa arteko lankidetzak
- Merkataritza-berrikuntza
- Enpresa-ibilbidea
- Hiriguneen dinamizazioa

Euskal autonomia-erkidegoko irabazi asmoko jarduera ekonomikoa gauzatzen duten merkataritza-enpresen jabe diren pertsonek, fisikoez edo juridikoez, eskuratu ahal izango dituzte sariak. Hiriko merkataritza-guneen dinamizazioari dagokion kategorian, EAEn jarduten duten pertsona fisikoez, pertsona juridikoez eta denetarikoz elkarre-egiturez bultzatutako proiektuak sarituko dituzte, baldin eta kategoria horretan ezarritako helburuak betetzen badituzte.

Epaimahaiak bere erabakiak justifikatzeko arrazoiak azalduko ditu saridunen proposamenen, eta sariak lehendakariak banatuko ditu ekitaldi batean.

Eskaerak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren lurralde-ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira maiatzean.

LOIUKO AIREPORTUAN TURISMO-INFORMAZIOA EMATEKO BULEGOA JARTZEKO HITZARMENA AENAREKIN

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lankidetzak hitzarmena sinatuko du AENA SArekin, Bilboko aireportuan turismoko informazio-bulego bat jartzeko espazioa doan laga diezaion.

Hitzarmena kudeatzeko eta betetzeko organo arduraduna Merkataritza eta Turismo Sailburuordeak izango da.

Enplegu eta Gizarte Politikak

SINDIKATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Enplegu eta Gizarte Politikako sailburu Ángel Toñak autonomia-erkidegoan ordezkatura dauden sindikatuentzako laguntzen Aginduaren onarpena jakinarazi dio gobernu-kontseiluari.

Laguntzen aurrekontua 1,1 milioi eurokoa izango da eta sindikatuen jarduerari loturiko gastu arruntak finantzatzera bideratuko da, hala nola erakundeon bulego- eta zerbitzu-gastuetara. Laguntzak proportzionaltasunez banatuko dira sindikatuen artean, ordezkartzaren arabera, 2015eko abenduaren 31ko hauteskundeen emaitzak kontuan hartuta.

Bilera horretan bertan, sindikatuentzat 520.000 euroko diru-laguntza bideratuko dela jakinarazi dio gobernu-kontseiluari; hain zuzen, Hauteskunde Sindikalen Batzordeari, lurralde-batzordeei eta Hauteskunde Sindikalen Ikuskaritza osatzen duten sindikatuei (ELA, Euskadiko CCOO, LAB eta UGT-Euskadi) bideratuko zaiena.

237/2000 Dekretuak, azaroaren 28koak, ezarritakoaren arabera, funts hori zati berdinetan banatu ahal izango da batzordeetako kide diren sindikatuen artean, edota hautes-prozesuetan lortutako ordezkartzaren arabera.

Banaketa-eredu bat edo bestea aukeratzea, aldeak (administrazioa eta sindikatuak) ados jartzearen mende egongo da. Horretarako, uztailaren 31ra arteko epea izango dute. Kontrara, ados jarri ezean, sindikatuek langileen eta herri-administrazioko langileen ordezkartza-organoen hautes-prozesuetan autonomia-erkidego osoan lortutako ordezkartzaren arabera egingo da banaketa.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

KULTURA ONDAREARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA

Gobernu-kontseiluak Euskadiko Ondarearen Lege Aurreproiektua onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak hala eskatuta.

Lege-proiektu horren bidez eguneratu eta egokitu nahi da 7/1990 Legea, Euskadiko Kultura Ondarearena.

1.- Testu berriak kultura-ondarea modu eraginkorragoan egituratzea du asmo, azken urteetan gertatutako aldaketetara (2003ko Ondare Immaterialaren Konbentzioa kasu) egoki dakien. Horretarako, testuak 3 esparru bereizten ditu kultura-ondarean:

1. **Kultura-ondare higiezinak.** Kultura-adierazpide materiala, lekualdatu ezin daitekeena (leku historikoak, arkitektura- edo ingeniari-talantak, monumentuak, monumentu arkeologikoak, etab.)
2. **Kultura-ondare higigarria.** Nortasun kulturala galdu gabe garraiatu edo lekualdatu daitekeen ondarea (altzariak, margolanak, musika-tresnak, etab.)
3. **Kultura-ondare immateriala.** Arbasoengandik jasotako tradizio edo adierazpide biziak. Ahozko tradizioak, ospakizunak, gizarte-usadioak edo arte eszenikoak, besteak beste.

Aipatu behar da indarrean dagoen 1990eko Legeak ondasun higiezinak eta higigarriak (immateriala berariaz zehaztu gabe) barne hartzen dituela, ondare arkeologikoak eta etnografikoak gain. Azken horiek, higiezinak edo higigarriak izan daitezkeenez, gainjarri egiten dira, eta egitura berriak hori zuzentzea du asmo.

2.- Indarrean dagoen legeak ez bezala (2 babes-maila esparru guztietan), Lege-proiektuak ezarritako babes-maila kopurua aldatu egiten da esparru batetik bestera.

Hala, kultura-ondare higiezinaren kasuan, 3 babes-maila zehazten ditu:

- a) Babes bereziko kultura-ondasunak (egungo ondasun kalifikatuen baliokideak): esku-hartzeen araubide mugatzaileagoa baimenduko zaie, batez ere sendotzeko eta zaharberritzeko lanak gailenduko direna.
- b) Babes ertaineko kultura-ondasunak (egungo ondasun inbentariatuen baliokideak): esku-hartzeen araubide malguagoa baimendu zaie, nagusiki eraikinei erabilera berriak ematera bideratuko dena.
- c) Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak: eraispena ekiditea da xedea; alegia, kanpo-egiturei bere horretan eustea.

Kultura-ondare higigarriaren kasuan, 2 babes-maila zehazten ditu:

- a) Babes bereziko kultura-ondasunak: zaharberritzeko lanek izango dute lehentasuna, eta aurretiazko baimena beharko dute.
- b) Babes ertaineko kultura-ondasunak: kontserbazio prebentiborako eskakizunak betetzea bermatuko beharko da, ondasunok baldintza onetan iraunarazteko.

Kultura-ondare immaterialean, babes-maila bakarra. Izan ere, ondasun immaterial erkideak direnez, garapen-gaitasun handiagokoak dira. Babes-estrategiaren helburua ez da erabilerak arautzea eta baimentzea, baizik eta komunitate horiei laguntzea, ondasunen benetakotasunari eutsi, eta ondorengo belaunaldiei helarazi diezazkieten; ondorioz, ez da beharrezkotzat jo babes-maila bat baino gehiago bereiztea.

3.- Kategoriei dagokienez, indarrean dagoen legeak ezarritakoa aldatzea proposatu da. Gaur-gaurkoz, 3 kategoria bereizten dira ondare higiezinetan eta higigarrietan (monumentua, monumentu multzoa eta kultura-gunea). Lege-proiektuak, aldiz, kultura-ondarearen esparruan beste herrialde eta eskualde batzuetan hautemandako joerarekin bat eginez, kategoria gehiago barne hartu ditu, eta esparruka bereizi, kultura-ondarearen babesa aurre egin beharreko askotariko egoeretara hobeto egoki dadin. Horrenbestez, ondare higiezinaren kasuan, 6 kategoria bereizi dira (monumentua, monumentu multzoa, gune arkeologiko edo paleontologikoa, leku historikoa, kultura-paisaia eta kultura-ibilbidea); ondare higigarrian, ordea, bi besterik ez (banakako ondasunak eta ondasun erkideak).

Ondasun immaterialen kasuan, ordea, eta 2003ko ondare immaterialaren konbentzioak ezarritako bidetik, beste bost kategoria hartu dira kontuan (kulturaren ahozko tradizio eta adierazpideak; ikuskizunaren arteak; gizarte-usadioak, erritualak eta ospakizunak; artisau-ezagutzak eta -teknikak; elikadura motak eta sukaldaritzak).

4.- Esku hartzeko irizpideak ere zehaztu ditu lege berriak. Babes bereziko kultura-ondasunetan eta babes ertainekoetan kontuan hartu beharreko irizpideak jaso dira, orokorrak eta espezifikoak, babes-mailaren eta esparruaren arabera sailkatuta. Oinarrizko babesa duten ondasunen kasuan, babes-irizpideak dagokien udal-mailako hirigintza-tresnaren bidez arautuko dira.

Legean esku hartzeko irizpideak arautzearen xedea da lege-izaera ematea euskal autonomia-erkidegoan kultura-ondarearen kudeaketan gaur egun onartuta dauden erreferentzia teknikoei. Irizpide horiek legean txertatzea kultura-ondarearen kudeaketa eguneratzeko eta modernizatzeko bultzada izango da Euskadin; etorkizuneko babes-araubideak egitea eta idaztea erraztuko du; segurtasun juridiko handiagoa emango dio babesari; eta foru-aldundien babespeko ondasunen gaineko esku-hartzea baimendu ahal izatea erraztuko du.

5.- Aholku emateko eta erakundeen koordinaziorako organoak eratuko dira. Batetik, beharrezkotzat jo da Euskadiko Kultura Ondarean Kontseilua sortzea, kontsulta- eta aholku-organoa izan dadin zientzia-diziplina eta ezagutza-esparru askotarikoek bat egiten duten esparru horretan.

Bestetik, Euskadiko Kultura Ondarearen Erakundearteko Organoa, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen jarduerak koordinatzekoa, eta, halaber, kultura-ondarearen inguruan sektorearteko antolamendua handitzea xede duena (lurralde-antolamendua, ingurumena, nekazaritza eta turismoa, besteak beste).

6.- Eskumenen banaketa-eredu orokor bat ezarriko da hiru esparruetarako, egungo lege-esparruaren eta azken urteetako jardunbidearen arabera.

- a) Eusko Jaurlaritzaren ardura izango da oinarrizko araudia garatzea, ondarea babestea eta erakunde publikoek kultura-ondarean duten jarduna koordinatzea.
- b) Foru-aldundien ardura izango da ondarea kontserbatzea eta zaharberitzea, esku-hartzea baimentzea (monumentu multzoen kasuan salbu), ikuskatzea eta zerga-pizgarriak arautzea.
- c) Udalen ardura izango da hirigintza-tresnak sortzea eta monumentu multzoetako esku-hartzeak baimentzea. Gainera, oinarrizko babesaren udalen hirigintza-babesaren ardura izango da. Hirigintza-babesa kultura-babesean sartzeak nabarmen indartuko du Euskadiko kultura-ondareak duen babesaren. Elementu gehiago babestuko dira, eta, gainera, babes-maila aldatzeko, ezinbestekoa izango dira Euskadiko Kultura Ondarearen Kontseiluaren aldeko irizpena eta kultura-ondarearen esparruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren baimena.

7.- Babestutako kultura-ondasunen bi erregistro sortuko dira, egungo legeak ezarritakoak hainbeste, baina eduki desberdinekoak:

- a) Lehena, Eusko Jaurlaritzak Babes Berezi eta Ertaineko Ondasun gisa izendatutako ondasunen erregistroa.
- b) Bestea, Oinarrizko Babesa duten Ondasunen erregistroa, udal-katalogoetako informazioarekin osatuko dena. Udal-katalogoetan jasotako informazioa eta Eusko Jaurlaritzak babestutako ondasunak desberdin tratatu eta kudeatu behar dira.

Babes-mailari dagokionez, babestutako kultura-ondasunen titularrei dagozkien kontserbazio-betekizunak arautu dira, hala nola kasuan kasuko aldundiak egin beharko dituen jarduera subsidiarioak eta ezarriko dituen zehapenak, betekizunak betetzen ez badira. Neurri horien bitartez, lege berriak babesagatiko ondare-erantzukizuna zehaztu nahi du. Izan ere, zehaztapen-maila areagotuta, Eusko Jaurlaritzak segurtasun juridiko handiagoa izango du balizko ondare-erantzukizunagatiko demanden aurrean. Ezin da ondare-erantzukizunik eskatu legea aplikatzearen ondoriozko jardueren (mugaketen) kasuan.

Zehapen-araubideari dagokionez, zehapenak jartzeko eskumena, kasuan kasuan, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek izango dute. Halaber, kalte-galerak ordaintzeko betebeharra arautu da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

500.000 EURO LANBIDE HEZIKETAREN EREMUKO MUGIKORTASUNETARAKO, ERASMUS + PROGRAMAREN ESPARRUAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntza-arrazoiengatik pertsonen mugikortasun jarduerak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak deitzen dituen agindua, ERASMUS + programaren barruan.

Erasmus+ programaren 2016ko deialdian ikaskuntza-arrazoiengatik pertsonala eta ikasleak mugitzeko onartutako mugikortasun-proiektuak kofinantzatzeko diru-laguntzak, 500.000 euroko zenbatekoarekin, deitzea du agindu honek helburu, betiere mugikortasun-proiektu horiek 2016. eta 2017. urteetan gauzatzen badira. Mugikortasun horien azken hartzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan matrikulatutako edo titulaturako ikasleak (ikasketen azken urtean eskatzaile izan baziren) edo Euskal Lanbide Heziketako irakasleak izan beharko dute.

Kofinantziazio horrek, beraz, 2016. eta 2017. urteetan gauzatuko diren mugikortasunei dagozkien proiektuen aurrekontuaren zati proportzionala hartuko du.

71.670 EURO ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IKASTETXEETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran agindu bat onartu du. Agindu honen bidez, Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateko deia egiten da.

Agindu honek, 71.670 euroko zenbateko globalarekin, araubide bereziko irakaskuntzen barruko Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxe baimenduentzako langile-kostuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematea du helburu, betiere, 2015-2016 ikasturtean diru-laguntzarik ez badute jaso Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultu Saitetik.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

AUZOLANDEGIAK PROGRAMA GARATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA UDALEN ARTEKO ELKARLANERAKO HITZARMENA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila baimendu du, 2016ko Auzolandegiak egitaraua garatzeko zenbait udalekin elkarlanerako hitzarmenak sinatu ahal izan ditzan.

Aurten Euskadin gauzatuko diren hamar auzolandegiak burutu ahal izateko, Saila bertako udalekin ari da elkarlanean. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak urtero antolatu ohi du gazteentzako Auzolandegiak egitaraua, eta berau garatu ahal izateko egoki jotzen da udalekin elkarlana gauzatzea, materialak, langileak edo instalazioen erabilera errazteko xedez. Sailaren ardurakoak izaten dira antolakuntza, izen emate prozedura, sustapena, langileak kontratatzea, mantenua eta gerta litezkeen arriskuen gaineko estaldura.

Segurtasuna

ONARTU DA ALDERDI POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ARRUNTERAKO URTEKO DIRU-LAGUNTZA

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, alderdi politikoei 2016rako emango zaizkien diru-laguntzen banaketa zehazten duen Segurtasun Sailaren akordio-proposamena onartu du, oraingo honetan, urtarrilaren 1etik irailaren 30era arteko bitartean aplikatuko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2016rako Aurrekontu Orokorren Legeak 4.536.000 €-ko partida aurreikusten du alderdi politikoei funtzionamendu arrunteko gastuak ordaintzeko diru-laguntza emateko. Lehen ordainketa 3.395.803 eurokoa izango da.

Eusko Jaurlaritzak Alderdi Politikoen Finantzazio Legean zehaztutako irizpideen arabera banatuko du partida alderdien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak bermatutako 2012ko urriaren 21eko hauteskundeetako emaitzak oinarritzat hartuz.

Ekitaldi honetan, diru-laguntzak honela banatuko dira:

EAJ-PNV	1.268.623,06 €
EH-BILDU	938.948,02 €
PSE-EE (PSOE)	717.757,15 €
PP	443.178,49 €
UPyD	27.296,56 €

Osasuna

OSASUN SAILAK 1,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU OSASUN-ARLOKO IKERKETA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK EMATERA

Gobernu Kontseiluak 1.200.000 euroko diru-laguntzak emateko agindu bat onartu du gaur, osasunaren arloko ikerketa-proiektuak garatzeko, Jon Darpónek zuzentzen duen sailaren apustuaren jarraituz. Osasun-arloan ikerketa sustatzearen eta bultzatzearen alde egiten du Sailak, hain zuzen, Euskadiko osasun-sistema garatzeko eta etengabe hobetzeko funtsezko elementutzat jotzen baitu. Pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzea da proiektuetarako laguntzon helburua. Horretarako, ikerkuntza eta berrikuntza babestuko ditu, gaixotasunak prebenitzera, diagnostikatzera eta/edo tratatzera bideratutako jakintza sortzea, transferitzea eta/edo aplikatzea eta osasun publikoa sustatzea.

Gaur onartutako deialdi honetan lehenetsitako arloak 2020rako Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia berriaren eta 2013-2020rako Euskadiko Osasun Planaren barruan daude –tresna horiek Euskadin osasun-arloan egin beharreko jarduera publikoak finkatzen dituzte. Laguntza hauek Euskadiko I+G zentro publikoentzat eta pribatuentzat dira, eta zehazki, arlo hauetako ikerketa-proiektuek jaso ahal izango dituzte: Ikerkuntza Biomediko edo Osasun-arloko Teknologiei eta Zerbitzuei buruzko Ikerkuntzakoek, esku-hartzeen eraginkortasunaren segimendua barne hartuta.

Ikerkuntza biomedikotzat honako hauek hartzen dira: osasun publikoaren, eta oro har, giza osasunaren arloko oinarrizko ikerkuntza (gaixotasunak ardatz hartuta), klinikoa (pazienteak ardatz hartuta) eta epidemiologikoa, hala nola osasuna hobeto sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko, diagnostikatzeko, segimendua egiteko, kontrolatzeko eta tratatzeko behar den garapen teknologikoa.

Osasunaren eta osasun publikoaren arloko teknologiei buruzko ikerkuntza, berriz, praktika klinikoa, kalitatea eta pazientearen segurtasuna eta esku-hartzeen eraginkortasuna hobetzera bideratuta dago; bereziki, ebaluazioaren ikerkuntzaren bitartez hobetzera. Osasunaren eta osasun publikoaren arloko teknologiatzat eta zerbitzutzat honako hauek hartzen dira: osasun-arloko behar indibidualak eta kolektiboak asetzeko erabiltzen diren baliabide guztiak, hala nola botikak, ekipoak, gailu eta prozedura medikoak, antolamendu-ereduak eta laguntza-sistemak.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU PASAIAKO PORTUKO AGINTARITZAREKIN ELKARLANERAKO HITZARMEN BATEN BIDEZ HERRERAKO GELTOKIAREN ETA TRINTXERPEREN ARTEAN OINEZKOENTZAKO BIDEA ETA BIDE-GORRIA ERAIKITZEKO

Eusko Jaurlaritzak baimena eman du euskal autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak eta Pasaiako Portuko Agintaritzak elkarlanerako hitzarmen bat sinatzeko, portuaren eta hiriaren arteko lotura eta inguruaren hiri-berroneratzea erraztu asmoz. Helburu horrekin eraiki nahi dira Herrerako Euskotrenen geltokiaren eta Pasaiako Trintxerpe auzoaren artean oinezkoentzako bidea eta bide-gorria.

Ana Oregi sailburuaren arabera, «Eusko Jaurlaritzaren indarreko legegintzaldirako programak Pasaiako badia berroneratzea sustatzea barne hartzen du, erakundeen arteko itunak eta koordinazioa bultzatuta, lurralde-politika orekatu eta jasangarri baten barnean. Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetan ezarritakoaren arabera, trenbideari dagokionez, ingurunea hobetu behar da, hesi-muga izateari utz diezaion trenbideak. Gainera, Pasaiako Portuko Zerbitzu-eremuaren Antolamendu-plan Berezia berrikusteari ekin zaio orain gutxi, eta, horretan, eragindako erakundeak elkarlanean jarduteko deia egiten da, planak jasotako jarduerak gauzatu, eta portua hiri-ingurunean modu onean txertatuta egoteko helburuarekin».

«Horretarako, Plan Bereziaren berrikuspenak proposatutako antolamenduak erabilera publikora eta hirugarren sektoreko jardueretara bideratuko ditu portuko jabari publikoko zortzi hektarea baino gehiago, portu-eremuan ekipamendu publikoak sortzeko aukerari bide emanez. Aurreikusitako jarduera gehienetan ezinbestekoa da aurrez Plan Berezia onartuta egotea, baina hizpide dugun hau, elkarlanerako hitzarmenaren bidez gauzatuko dena, indarreko hirigintza-antolamenduarekin bat dator», zehaztu du Ana Oregik.

Lasarte-Hendaia lineako Loiola-Herrera bide-zatiko obra zibilaren eraikuntza-proiektuari loturiko lanek Herrerako geltoki berria eraikitzea eragin zuten. Egun, Trintxerperen eta geltoki berriaren artean ez dago biderik; tarte hori porturako sarbide-errepidetik egin behar da.

Pasaiako portuak eta Eusko Jaurlaritzak izenpetuko duten hitzarmenak arautuko du Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak eta Pasaiako Portuko Agintaritzak zein baldintzetan ekingo dioten elkarlanari Trintxerpe eta Herrera arteko oinezkoentzako sarbide berriaren eraikuntza-proiektua portuko jabari publikoan gauzatzeko.

Hitzarmen horren arabera, Pasaiako Portuko Agintaritzaren lurzati batzuetan, zehazki, 30.000 m²-ko azalera, portuko jarduerak eta hiri-ingurunea bateragarri egiteko aukera dago, 2015-2025 aldirako Plan Estrategikoak eta

Pasaiako Portuko Zerbitzu-eremuaren Antolamendu-plan Bereziaren berrikuspenak zehazten dutenez, eta erabilera publikoari eta hirugarren sektoreko jardueri irekiko dizkie portuko jabari publikoko zortzi hektarea baino gehiago.

Portuko eremuan ekipamendu publikoak sortuko dira akordio horren bitartez, tartean, oinezkoentzako bidea eta bide-gorria, portuaren eta hirigunearen arteko eremu mugakidea egituratuko duena, Herrerako Euskal Trenbide Sarearekin eta kanaleko museo-eremuarekin lotura ezarriz.

Hiriguneak eta portuak Euskadi etorbidean partekatzen duten eremua eta Trintxerperen eta Herrerako ETSren geltokiaren arteko oinezkoentzako bidea eta bide-gorria kalitatezko espazio publikoak izan daitezzen, hainbat jarduera behar dira, tartean, Portuko Agintaritzaren, Donostiako eta Pasaiako Udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako eremua zeharkatzen duten oinezkoentzako bidearen eta bide-gorriaren ibilbidea hobetzea.

«Konponbide eraginkorra beharrezkoa zen; izan ere, Plan Berezia izapidetu bitartean, Herrerako ETStik Euskadi etorbiderako oinezkoentzako bidea eta bide-gorria indarrean dagoen Zerbitzu-eremuaren Antolamendu-plan Bereziaren babesean eraiki daitezke, elkarlanerako hitzarmenaren arabera», azaldu du Ana Oregik. Lan horiek egiteko, Pasaiako Portuko Agintaritzak Euskadiko administrazio orokorrari portuko lur-sailak okupatzeko baimena eman dio.

Proiektuak, gehienez, 5.500.000 euroko aurrekontua izango du, geltokiaren eta Trintxerperen arteko lotura egiteko. Euskal autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak egingo ditu lanak, hitzarmenean jasotako lanak finantzatzeaz gain. Pasaiako Portuko Agintaritzak idatzi, finantzatu eta onartuko du obren eraikuntza-proiektua, eta euskal autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren esku utziko ditu beharrezkoak diren portuko jabari publikoko eta ondare-izaerako lur-sailak, eta eraikinak eraitsiko ditu, lurzoruaren ingurumen-kalitateari loturiko izapideak betez, udal-txosten beharrezkoen bitartez. Pabilioiak eraitea 31.018,79 euro kostatuko da; eraikuntza-proiektua, euste-horma barne, 59.000 euro; eta lurzoruaren kalitatea aztertzea eta hondeatze-plana idaztea, 29.239,50 euro.

Pasaiako Portuko Agintaritzak erabilera publikorako irekiko du Herrerako ETSren geltokiaren eta Trintxerpe auzoaren arteko lotura, obrak amaitu ondoren.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKO JAURLARITZAK UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASTETXEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTU DITU, ESKOLA AGENDA 21 PROGRAMA 2016-2017 IKASTURTEAN GARATZEKO

Eusko Jaurlaritzak gaur goizean onartu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura eta Ingurumen eta Lurralde Politika sailen Agindua, **Eskola Agenda 21** programa garatzeko euskal autonomia-erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei 2016-2017 ikasturterako eman beharreko diru-laguntzak deitzen eta arautzen dituena.

Lurraren Gailurraz geroztik (Rio de Janeiro,1992), garapen jasangarria funtsezkoa da, planetako ingurumenak etorkizuna izango badu. Hezkuntza, halaber, funtsezkoa da pertsonen jokabideak aldatzeko eta ingurumen-arazoei aurre egiteko, eraginkorrak izanik, eta egungo nahiz etorkizuneko belaunaldien ongizatea gogoan hartuz.

Ana Oregi sailburuaren arabera, «Eskola Agenda 21en programak zeresana eman zuen “Gaur ikasi, bihar jasangarritasuna lortzeko” leloarekin egindako Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Munduko Biltzarrean (Aichi-Nagoya, 2014), Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkadako 25 esperientzia onenetako bat izendatu zutenez. Biltzar hura garapen jasangarria lortzeko hezkuntza funtsezkoa dela argi utzi duen hamarkada horretako azken mugarririk izan zen».

Gaur-gaurkoz, Euskadiko ingurumen-politika eta -jarduerak 2020rako EAEko IV. Ingurumeneko Esparru Programak zehazten ditu. Gainera, 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia berria osatu da, jasangarritasunari loturiko hezkuntza eta kontzientziazioa euskal gizartean areagotzeko xedearekin.

Gaur onartutako aginduak arautzen ditu lehiaketa bidez emandako diru-laguntzak, euskal autonomia-erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeei 2016-2017 ikasturtean Eskolako Agenda 21 programa garatzeko ematekoak direnak.

Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabidea, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak. Itunpeko ikastetxe pribatuen kasuan, eskabide-orriak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak bide elektronikoan nola izapidetu behar diren jakiteko, jo helbide https://euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/A21E/y22-izapide/eu honetara: EAEko ikastetxe publikoen kasuan, berriz, deialdi hau elektronikoki izapidetzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailaren «Herri ikastetxeak» izeneko <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/agenda21-2014> atariaz baliatu beharko da:

Xede horretarako, gehienez ere, seihun mila (600.000) euro bideratuko dira. Diruz laguntzekoak izango dira Eskola Agenda 21 proiektua garatzeari zuzenean loturiko gastuak; ez dira diruz lagunduko, ordea, Eskola Agenda 21 proiektuari zuzenean loturik ez daudenak; irakasleek itundutako ikastetxe pribatuetan proiektua garatzen igarotako orduen kostua; eta, proiektua garatu ez arren, erosi beharreko materialak, lanabesak edo altzariak.

Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa ez du gaindituko erakundeak eskatutakoa, ezta gehieneko kopuru hauek ere: 5.000 euro, Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria indarrean duten ikastetxeentzat, eta 3.000 euro, gainerako ikastetxeentzat. Ikastetxe bakoitzak Eskola Agenda 21 proiektua garatzeko bostehun (500) euroko gutxieneko kopurua jasoko du. Horretaz gain, Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria indarrean duten ikastetxeek mila (1.000) euro gehiago jasoko dituzte.

**EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DIO GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIARI GABIRIAKO SANEAMENDU-PROIEKTUAK ERAGINDAKO
ONDASUNAK OKUPATZEKO**

Eusko Jaurlaritzak premiazkotzat jo du Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkoak diren ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, Gabiriako saneamendu-proiektua gauzatzeko.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 260.000 EUROS A AYUDAS A LAS ASOCIACIONES DE VÍCTIMAS DEL TERRORISMO

- **Las ayudas de este año se regularán por la nueva normativa aprobada en enero que simplifica el procedimiento de su concesión.**

El Gobierno Vasco va a destinar este año un total de 260.000 euros a ayudas a las organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas del terrorismo. La convocatoria de estas ayudas, que serán gestionadas por la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, ha sido aprobada hoy en la reunión del Consejo de Gobierno. La cuantía de las ayudas es la misma que en ejercicios anteriores.

Las ayudas van dirigidas a las asociaciones y organizaciones con domicilio en la Comunidad Autónoma Vasca y a aquellas de fuera de Euskadi que tengan entre sus asociados víctimas de acciones terroristas ocurridas en la CAV. También podrán beneficiarse otras personas jurídicas que tengan por objetivo y finalidad los propios de la atención a las víctimas de acciones terroristas ocurridas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los programas o actividades que promuevan las asociaciones tendrán como finalidad, entre otras, la atención, orientación el apoyo humano a las víctimas del terrorismo; el acompañamiento a las víctimas o sus familiares a los juicios relacionados con los delitos que motivaron su condición de víctima; la asistencia psicosocial a estas personas y a los familiares que ejerzan el papel de cuidadores, y la realización de foros, cursos o seminarios sobre víctimas del terrorismo en general.

El plazo de presentación para acceder a estas ayudas será de un mes a partir del día siguiente de su publicación en el BOPV.

Las ayudas de este año se regularán por el nuevo decreto aprobado el pasado mes de enero, que incorpora mejoras técnicas y simplifica el procedimiento de concesión de estas ayudas.

Así se han suprimido los límites máximos de las ayudas (que anteriormente podían ser de 48.000€ o de 60.000€, según los supuestos), si bien se establecen límites a la financiación de los gastos de personal y gastos corrientes con cargo a la subvención concedida, dado que el objetivo primario de estas ayudas son los programas de atención y asistencia a las víctimas del terrorismo.

Presidencia

CONVOCADO EL PREMIO REALIDAD SOCIAL VASCA

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la convocatoria del *Premio Realidad Social Vasca* de investigación, que promueve Lehendakaritza.

El galardón va dirigido a premiar los estudios e investigaciones que versen sobre cualquier tema que contribuya a conocer mejor la realidad sociopolítica del País Vasco o al desarrollo teórico o metodológico para la investigación de la misma. Se pretende, así, promover las investigaciones que presenten los mejores niveles de calidad y rigor científico-técnico, que destaquen por la originalidad de su planteamiento o por la novedad de la metodología empleada y que supongan una innovación en el campo de la investigación en su área.

Podrán presentar trabajos –en euskera o castellano– los titulados y tituladas superiores menores de 35 años, tanto individualmente como en grupo. Los trabajos presentados deberán ser inéditos y haber sido realizados en los dos últimos años. El plazo de presentación de trabajos finalizará el 13 de septiembre.

El premio está dotado con 7.300 euros y un Accésit de 1.700 euros. Los trabajos premiados serán publicados por la Presidencia del Gobierno Vasco.

RECONOCIDA LA EUSKAL ETXEA DE MONTPELLIER

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el reconocimiento de la “*Association des basques de Montpellier et sa region-euskaldunak*” como Centro Vasco.

La aprobada hoy, es la quinta euskal etxea implantada en territorio francés, junto con las de París, Pau, Burdeos y Marsella y constituye el número 190 de los centros vascos que se encuentran repartidos por el mundo.

